

Jesus Urzelai Aiastui

*Oñati, Gipuzkoa
(1929-2022)*

Aurkibidea

Biografia



Santsolopetegi (Madalena) auzoko Anduagakua baserrian jaio zen 1929ko urteberri egunean. 8 anai-arreba ziren. Gurasoak ere oñatiarrak zituen, aita bertakoa eta ama Ertzil baserrikoa. Zañartu auzoan ibili zen eskolan gerra garaian, eta geroago Madalenako eskolara pasa ziren. 11 urtera arte ibili zen eskolan, baina lanean hasi ondoren gau-eskoletan ere ibili zen. 14 urterekin Garai lantegian hasi zen lanean.

Zintak

ONA-075

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-01-22
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ONA-076

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-01-22
- **Iraupena:** 15 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Izen anitzeko auzoan jaioa

- **Erref:** ONA-075/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:07:37. **Bukatu:** 00:10:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Jesus Urzelai Aiastui, 1929ko urtarrilaren 1ean jaio zen Anduagakoa baserrian. Bere auzoa "Madalena" izenarekin ezagutu du Jesusek bere 80 urteetan, baina "Santxolopetegi" lehenengo eta "Antsolopetegi" orain dira auzoaren izen ofizialak. "Antxilipiztegi" eta "Txantxilipiztegi", berriz, inguruko baserritarrek erabili ohi dituzten izenak.

Transkripzioa

- Jesus, abizenak zela dakazu?
- Urzelai, Aiastui.
- Ze urtetan, ze egunetan jaio ziñan?
- Eneruan batian, hogeta bederatzixan.
- Oseake urtiak oso-osuak beteten (di)ttozu zuk.
- Oso-osuak, larogei ointxe indda, larogei urte, e?
- Gaztiaua emuten dozu.
- Bai, gaztiaua bai.
- (...)
- Eta hemen jaio ziñan?
- Bai, bai.
- Zela da, Anduaga?
- Anduagakua.
- Zuek zelan esaten dozue?
- Guk Anduaga.
- Anduaga.
- Guk Anduagakua gero aiuntamientutik etorri zan, letrerua, horreik ifintten

xuein Anduagakua.

- Martezkuari badakitzu zela ifiñi xauen?

- Ez dakit zela ipini xauen.

- Martezlopezkua-edo, Martelopezkua edo holako zerbait.

- A, bai e? Hau Anduaga, betik Anduaga.

- Anduaga, zuek hala esaten dozue.

- Eta hau, Anduagakua, aiuntamientuak ipini eben.

- Eta aiuntamientuak u-kin edo o-kin jarri eben? Anduagakoa edo Anduagakua?

- -kua uste dot. Hortxe dau letrerua ipinitta, uste dot -kua dauela ipinitta, Anduagakoa edo Anduagakua, ez dakit, hortxe dao letrerua.

- Martez..., Martelopezkoa da Martezkua, pentsa eizu.

- Hemen ipini zittuein etxe danetan, honeik letreruak zenbat urte ipiñi zitteilla ba? Horko letrerua neuk ipiñitta dau gaiñera eta... honeik ingo zittuein hamar bat urte, edo gehixau, hamabost bat urte igual, honeik letreruok ipiñi zittueila.

- Eta auzuari zelan esaten dotzazue?

- Guk lehenau Madalena. Oin Antxolopeztegi. Antxolopeztegi itxuria bizi guztikua izanda, baiña betik auzo hontan esan da betik Madalena esan da.

- Zuk umetatik ezagutu dozu hau Madalena?

- Bai. Ta hemen beste izen bat esaten daue beste batzuk Antxilipiztegi.

- Enrike Torreausokuak, Txantxilipiztegi.

- Txantxilipiztegi, eta hau oin, letrerua ikusi dozue, Antxolopeztegi. Lehen zan Santxolopeztegi.

- A, oin esia be kendu in xaue?

- Kendu in xaue. Oin Antxolopeztegi.

- Bai, Antxo, ni be konturatu naiz Antxo ipintzen zula.

- Nik begiratu eta ez neben holakorik pentsaitten, Santxolopeztegi izango zala.

- Txantxilipiztegi dok hori, baiña betiko Madalena, Madalena auzua. Oin be gurera kartan bat etorten baldin bada, Madalena auzoa izango da, oin, etorten badira karta ofizialak ez, baiña etxekoren batek eskribitten baldin badau, Madalena auzua.

2. San Frantzisko Antsolopetegin bizitakoa

- **Erref:** ONA-075/003

- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:10:17. **Bukatu:** 00:12:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Auzo izenekin gorabehera handiak izan dira azken urteotan. San Frantzisko garai batean Antsolopetegin bizi izan zen. Madalenako ermita ondoan zegoen artea San Frantziskok landatutakoa omen da batzuentzat. Beste batzuentzat santuaren atseden leku zen arte horren gerizpea.

Transkripzioa

- Oseake orduen oin dala larogei urte honi Madalena esaten xakon.

- Bai. Betik, nik betik hala ezagutu dot. Oin etorri ziren hemen, oin dala urte gutxi hasi ziren hola aldaketan gauzak. Badakitzue, hemen lehenau be

Urrusula, orduen betik Urrusula, gero Urrexola ta hasi ziran etorten. Urrexola, nundik nora? Guk betik Urrusula.

- Urrusula, bai.

- Urrusula, ba gero baten batek idatziko eben edo eskribiuko eben, esanez hau ez da Urresola, hau da Urrexola, Urresola ez. Ointxe puntuan egon nitzan Urrusulako elizan. Ez dakit sekula egon zarien.

- Ni eliza onduen azkenengo aldiz fan zan domekan, sarri-sarri, eliza barrura ez dakit sekula sartu naizen.

- A, bai? Geu be barrura ez giñan sartu, ba han dago haritz arbola bat, haritza, arbola, eta esan nontan ze batek, hori dala, eliziak beste urte dakola, eta bera elizia Oñatiko zaharrena dala. Ez, ezin leke hori esan.

- Parrokixia dakoi han.

- Bai, parrokixia, bai, bai. Eliziak beste urte ezin leke euki Urrusulako honek, haritz honek, zeatik haritzen bizimodua da, hemen e, nik bestela ez neben jakingo baiña, hau Gernikako arbolia badakitxue Oñatiko plazan zela dauen, ezta? Horren diskuziñua atara geben baten, eta fan nitzan aiuntamientura eta aiuntamientuan topau geben noiz sartu zan ta dana. Sartu zan “el año quince” edo sartu zan.

- “Quince”, fan zan gizaldixan?

- Hori da. Eta bizixa dako, gero irakurri neben, nunbaitten irakurri neben, haritz arbolien bizixa dala, ehun ta berrogeta hamar bat urte, hori luze jota.

- Bai zera.

- Hala esaten eben liburuak, nik irakurri dotenak behintzet.

- Nik uste neben bastante urte gehixao bizitten direla haritzak.

- Nik liburu baten irakurri neben hori. Eta hemen gero Madalenan, eliza aurrian, artia, zuk ez zebe ezagutuko, arta, arte, artia arbola bat izugarrixa.

- Euen hor?

- Madalenako eliza ate aurrekaldien. Ondiok be dau holako batetik ebagitta, eta han lora batzuk edo ipintten (di)ttugu, urtien behin edo ipintten (di)ttue, lehen neuk be bai baiña, ipintten (di)ttue. Esaten daue, gure hemengo aittari entzunda dakot, San Frantzisko hemen bizi izan zanian, haren azpitan egoten zala deskantsaitten, lana inda gero. Eta beste batzuk esaten daue berriz, San Frantziskok sartutako landaria zala ha.

3. Santa Cruz apaiza Oñati inguruetan

- **Erref:** ONA-075/006
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:18:14. **Bukatu:** 00:19:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Jesusen amonak (Aretxabaletako Goroeta auzokoa zen), 12 urte zituela Santa Cruz apaiza ezagutu zuen. Auzoko gazte guztiak basoan ezkutatu omen ziren, bestela gerrillariak erreklutatu egingo zituztelako. Oñatiko Aurreko Mendian egon omen zen gerrillaria negu batean elurrak harrapatuta. Aita Santuaren barkamenik lortu ez, eta Ameriketara alde egin omen zuen.</p>
<p>

Transkripzioa

- Eta hemen gure amandria, Koruetakua, Koruetakua zan gure amandria. Eta harek ezagutu eben "Cura Santa Cruz".
- Ez da izango?
- Ezagutu eben harek.
- Elementu ona izan bihar zan ba...
- "Cura Santa Cruz" izan zan, badakitxue, gerrillerua izan zan, leheningo gerrillerua munduan esaten daue izan zala bai, eta gogorra.
- Txarra esaten dauenez.
- Txarra? Harek esaten eben hori agerketan zanien, hango gazte danak basora faten zirela, basora, basuen gordeten zirela. Horrek danak hartu eta aurrian eruaten ei zittuen.
- Danak reklutau.
- Eta kitto, eta ez, zera ez zana, blast, e? Fuera! Eta negu aldi bat, nik horreik liburuan nunbaitten nola etorri zan gurera, eta zan liburu bat deskribitten ebena, ez dakit zeintzuk ziren, baiña esaten eben erderaz esanda, "en defensa del Cura Santa Cruz, por las atrocidades que han dicho por el". Defensoria izan da be, artian, artian esaten zittuanak! Negu aldi bat Aurreko Mendixen pasau eben hamabost egun bat edurrak harrapota. Eta gero esaten da Amerikara fan zala, barkaziñua eskatu Aitta Santuak barkaziñorik ez, eta Suizan egon zala. Uste dot ofizialena Amerikara fan zana. Ameriketari "Cura Santa Cruz" famosua.
- Eta nundik ezagutu zeban zure amandriak?
- Koruetan, hamabi urte eukela ezagutu eben berak. Gure amandria Koruetatik etorri zan hona, ezkontuta. "Cura Santa Cruz".

4. Goroeta auzotik Oñatira

- **Erref:** ONA-075/007
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:19:56. **Bukatu:** 00:21:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Goroeta auzoko Iraban baserritik etorri zen gaztetan Oñatira Jesusen amona, eta honen ama Zumarragakoa zen. Birramonaren lehen lau abizenak "Bengoa" ziren.

5. Kubatik herentzia

- **Erref:** ONA-075/008
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:21:49. **Bukatu:** 00:23:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Jesusen amonaren anaia bat Kubako gerrara joan zen. Etxera itzultzean desagertu egin zen betirako. 1947an, herentzia handi bat iritsi zen Kubatik

Bengoatarrentzat. Bailaran Bengoatar ugari dauden arren, Bilboko batzuek jaso zituzten herentziako milioiak.

6. Amonaren ahizpa arrantzaleen munduan

- **Erref:** ONA-075/009
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:23:49. **Bukatu:** 00:27:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Kontu kontatzaile ona zuen amona. Igitaiarekin joaten zirela Arabara garia ebakitzera esaten zion amonak. Amonaren ahizpa bat Donostiako portuan oso ezaguna egin zen, neskame joan eta gero. Ahizpa honen arrantzale kontuak azaltzen ditu Jesusek.

7. Ohitura zaharrak; tertuliak

- **Erref:** ONA-075/010
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:27:48. **Bukatu:** 00:30:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Jesusek gazte denboran sarritan entzuten zuen bere aurrekoak, elurra egiten zuenean, auzotar baten etxean elkartu, pipa erre eta tertulian egoten zirela egun pasa. Jesusen aitajauna behin Aramaiora joan omen zen "gerra ikustera".</p>

Transkripzioa

- Zure aittajunak ez zittun holako abenturarik euko, ezta?
- Nik aittajuna ez neben ezagutu. Nere anae zaharrenak esaten eben, hik derrigor ezagutu bihar hian. Ez nik ez neben ezagutu, nik ezagutu neben horko aittajuna eta Balantzategiko aittajuna be bai, nik beste aittajunik ez neben nik ezagutu. Orduan egozen Pedro Martin, ha justo-justo harekin akordaitten naiz, hola butaka baten egoten zala pipa erreten. Eta hor goiko Santuekua ha ezagutu neben ba hementxe, zerien, domeketan meza nagusittatik bueltan edo hor etorten zan, hortxe geraketan zan barriketan, altu, flako bat. Lehenau esaten da, nik ez neben ezagutu baiña, lehenau negu partian edurra itten ebenian, etxe baten juntau ta pipia erre ta egoten zirala.
- Barriketan?
- Barriketan, Garibaiko errotara esaten daue faten zirala asko.
- Tertulixara.
- Tertulixara, goiza pasaittera edo atsaldia pasaittera, edurra itten ebenien. Hori zenbat aldiz entzun doten nik hori. Neuk ez dot ezagutu, e? Guk hemen, gure gazte denporan edur asko itten eben, oingo aldian asko itten eben, baiña neuk ez dot ezagutu hola tertulixarik itten zanik-eta.
- Edurra euenien etxian.

- Etxien. Baiña lehenau juntau itten zirala, nik hori entzunda dakot hemen, Etxetxoko haren Pedro Martiñen semien andria, zera, harek esaten eben gure aittajaun, gure aitta eta faten ziren errotara, Garibaiko errotara pipia erre eta eguna pasaittera. Kontuak kontaitten hantxe, lehenauko kontuak, lehenauko gerra karlisten gerrak-eta, horreik danak ibiliko zittuen bueltaka "seguramente". Zeatik eze, gure amandriari entzunda dakot hemengo aittajuna fan zala behin gerria ikustera Aramaixora-edo, horra.

- Gerria ikustera? Gerria ikustera fanda. [...]

- Ikustera fanda. Eta izan bihar zan, bueno, oso billurtuta etorri zala. Egurraikin, estakakin-ta, han in euela burruka aldi bat eta baikotza bere aldetik etxera, etxera edo eurak etorri zirela ikusitta egon eta etxera. Gure amandriak esaten eben hori.

- Estakakin itten zebala burrukan?

- Klaro. Han egongo ziren.

- Ezpatarik be ez. Egurraikin.

- Egurraikin, harek esaten eben, gure amandriak esaten eben egurraikin. Eta gure amandria ezkondu baiño lehenau ikusiko eben, egongo zan igual. Harek esan nontan zure aittajunak esan itten xuan hori. Gerria ikustera fan zirela Aramaixora edo horra fan zirala.

8. Meteoritoa Zañartun?

- **Erref:** ONA-075/012
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:31:55. **Bukatu:** 00:34:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Batzuen esanetan, meteorito batek utzitako harri pila handi bat dago Zañartun, Iturri Zahar inguruan. Harrizko horma sail luzeak ere badaude inguru haietan; gerrarako edo ganaduentzako eginak, nork daki. Zabaleta abadea ibili omen zen misterio horiek argitu guran, baina ez zuen arrakasta handirik izan. Bakuetik harri pilaraino "Zabaletaren bidea" izeneko bidexka bat dago.

Transkripzioa

- Ni jubilau ta gero, txakurraikin basuan nabillela kaza denporan, Iturri Zahar esaten xaugun leku horretan, txakurra ulia harro-harro egindda, nere artian ba "ze pasaitten dok?" Eta zaratia entzuten neben piñu artian, "ze pasaitten dok hemen?". Hala fan naiz begira eta gizon bat, Garaialde ikusi neben. "E!" esan notsan: "Zer dabitzu hemen?" ta "hemen nabil!" Orduan ibiltten zan hori perretxiku billa, ez dakit zelako perretxiko klase bat, asko egoten da, asko egoten zan basuan, oin ezkutauta egongo da seguramente. Hor dagoz Iturri Zaharra entzunda eukiko dozue zuek, hor dago harri pilla bat, harri pilla haundi bat, esaten meteoritua ete dan ala ez ete dan. Zabaleta abadía ez zeuen zuek ezagutuko, entzunda igual euko dozu zuk.

- Entzunda bai.

- Entzunda. Hori da zientifikua, zala esaten euen, egon zan epoka baten Zabaleta sendia. Bakuetik Zabaleta sendia, hor harri pillara, eta hor inguruan egozen tremendako pareta zaillak indda. Oin be egongo dira

batzen batzuk. Tremendako pareta zaillak inddu, eta horrek hori itxuria han ibilli zan ikusten, honeik gudarako inddu ete dagoz? Gerrarako inddu ete dagoz? Eta ez dakit, ez dot uste. Honeik ganaduentzako zeozer inddu. Pareta asko dago hemen inddu. Eta hartan geratu giñan. Horko sustarrik iñok be ez dau atara.

- Itturri, zuk Itturri Zahar ze esaten dozu, Zañartukua? Honein Etxeaundiko zera? Etxeaundittarren...?

- Etxeaundittarren terrenua esaten dozu?

- Bai.

- Terrenuak horreik izango ziren, onduen dauena behintzet bat oin Upaiñek erositta, Etxeaundik be hantxe onduen dakoi, baiña...

- Bittoriano Etxeaundik esan doskun berak iñ ebela, hauxe lan hau berau itten, berak iñ ebela itturri hori.

- Bai, itturrixa, han ha beheko zailla horrena da, justu-justu ezkiña harrapaitten dauena. Baiña pillia, harri pillia dauena ez da beria, bere terrenua. Itturrixan egon za?

- Ez, ezta.

- Lehengunian esan nontan batek itturrixa total galdu dala oin.

- A bai, e?

- Bai, horrek iñ eben baiña iñok gehixau kasorik iñ ez eta badakitzu...

- Maittasun haundixakin iñ eben ba.

- Horixe! Inaguraitten eta danian egon giñan gu han! Botilla ardaua, bi botilla ardau eren bai, eta bat eran geben eta bestia gorde han bai, eta hurrengo fan giñanian topau ez.

9. Jentilenak eta beste kontakizun batzuk

- **Erref:** ONA-075/014
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:35:10. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

San Pedroko zubia jentilek egin omen zuten. Jesus umea zenean, umeak beldurtzeko "Anbotoko Señoria" aipatzen zen edota San Juan Artiara morroi bidaltzearekin mehatxatzen zituzten. "Anbotoko Señoria" Aloñara etortzen omen zen.

Transkripzioa

- Leiendak esaten daue San Pedroko Torreko etxia edo zubixa, in euela jentillak, entzunda dakotzu hori?

- Bueno, jentillen kontuak bai, baiña zubi horrenik ez.

- Ez dakotzu? Eta San Pedroko amandria, amandren batek, zubixa akabaitten baldin bauen eguna zabaldu orduko, alabia emun bihar osten. Hori entzunda dakotzu?

- Bai, bai.

- Eta itten euen hiru harrikadan, Iturri Zaharretik Bakuera harrikada baten; bigarren harrikadan Zañarturaino; Zañartutik Torrera beste harrikada baten, jentillak botaten euen. Eta azkenengo harrixa ipintten zebillela, kandelako argixa ipiñi zerari, oillarrari, eta oillarrak kantau in eben. Eta esaten daue beheko harrixak dakola atzaparra markak. Leienda kontuak.

- Orduan amaittu zebeu zubixori?

- Amaittu eben itxuria, baiña azkenengo harrixa ipintteko geratu zan.
- Oillarrari kandelia ifiñi otsan.
- Amandriak. Eguna argittu zala eta orduan oillarrak kantau in eben. Hiru harrikadatan. Bakuera, Bakuetik Zañartura eta Zañartutik San Pedrora. Trasportia.
- Zer kontatzen zebeñ jentia, zer zirala-edo?
- Jentillan historixak hemen badakitzue, zerien dakotzu Legazpiko kurtze onduen be Jentiletxe dau, ikusitta egongo zara igual. Legazpiko kurtzia, ezkertera honutzara hola harri pillu haundi bat, Jentiletxe esaten xaue. Jentiletxe, hemen leiendak ez dakit zenbat egongo diren, hori San Pedrokuori betek entzun dogu eta dakigu, entzunda e?
- Aixkirriko koban be Jentillen tesorua euela ta...
- Bai, lehenau be Anbotoko Señoria pasaitten zala hemen, hori entzun geben mutiko denporan billurketako, "Anbotoko Señoria etorriko dok!" Eta beste bat izaten zan hemen, zezer ez baldin baen ondo itten, kriaue zera, San Juan Artixara, San Juan Artixara kriaue! Hemen amenazua hori izaten zan. San Juan Artixa badakitzu nun dauen.
- Bai, baiña han Mikeletiak egozen.
- San Juan Artixan ez, San Juan Artixan famelixia bizi zan. Mikeletiak beherau egozen.
- Beheratxuau, bai, bai.
- Bai ba, bueno, betek amenazua. Mutikua! San Juan Artixan kriaue hi!
- Eta zergaittik hori? Ze euen ba han?
- Ba urrin euen ha eta, urrin euelako izango zan edo. Pentsau itten dot nik.
- Urrin dagolako.
- (...)
- Eta sorgiñen kontuak eta entzuten ziren?
- Sorgiñen kontuak hemen, sorgiñen kontuak entzuten ziren hemen Anbotoko Señoria. Anbotoko Señoria pasaitten zan Aloñara, Aloñatik Anbotora, Anbototik Aloñara esaten zan orduan: "Anbotoko Señoria pasau edo etorriko dok gero!"

10. Lapurak bideetan

- **Erref:** ONA-075/015
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:38:20. **Bukatu:** 00:40:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Garai batean Fanderia inguruan lapurreta asko izaten omen ziren, harik eta Eibarren pistolak egiten hasi ziren arte. Pistolokin hasi ziren ibiltariak lapurrek uxatzen. Lapurrek ihes egiten zuten bidea oraindik ere "Lapur Bide" izenez ezagutzen da. Garai hartan inguruko ferietara jendea oinez mugitzen zen, lapurren zorionerako.

Transkripzioa

- Eta sorgiñen kontuak ziren ba hemen sorgiñak Fanderixan. Horri Fanderixan Lapurbide ondiok be bide bati Lapurbide esaten xaue ondiok. Hor egoten ziren atrakuok eta zerok. Hemen Balantzategiko Mariano zan bat, harek esaten eben hori Eibarrek kendu zittuala danak, pistola etara ebenian.

- Hori entzunda dakat nik.

- Entzunda. Eibarrek kendu zittuala horreik danak.

- Lapurrok.

- Lapurrok orduan kendu zirela hemen. Ondiok be han dau bide bat, zuek ez zai konturatuko, hantxe dau goitik behera zoiazela ezkerretara, bide bat ikusiko dozue ondiok, oin nehikua garbi dau, ha da Lapurbide. Handik ihes itten euen lapurrok eta hari esaten xako Lapurbide, Fanderixan. Eta hor ibilliko ziran sorgiñok-eta.

- Lapurbide, lapurrak ze ziren, bide lapurrak edo?

- Klaro, bide lapurrak, eta gabien badakitzu orduan lapurrak egongo ziren oingo moduan edo antzera igual. Txahala saltzen, orduan ez zan automobilik eta trenik-eta, orduan oiñez ibiltten zan. Eta Mondrauera, ohitura haundixa euen Mondrauera ferixara fateko, asko egon zan hemen. Neu be aittakin fanda nago astuakin, astua saltzera Mondrauera, eta orduen bueltan oiñez etorten ziñan. Harutz oiñez eta bueltan be oiñez.

- Harutz diru barik eta honutz diruaz.

- Klaro. Eta han baten batek zainttu itten zeuen. Bueno, hola pentsau itten dot nik e?

- Bai, bai, hola izango zan.

- Eta hori esaten eben, hori Eibarrek kendu zittuala horreik, pistola etara ebenian, orduen fan zirala danok.

- Jentia pistoliakin ibiltten hasi eta defendiu.

- Jentia defendiu, baten bat etorten bazan zera, pistola etara eta billurra, badakitzu. Bizixa estimau, normala dan moduen.

- Eta Sakamantekasena hemen zueri ez otsuen itten? Hemen ez zan entzuten?

- Bai entzun, entzun itten zan Sakamantekas gure mutiko denporan entzuten zan, bai. Sakamantekasak billurketara, billurra sartzeko.

11. Kanoikadak San Jose egunean

- **Erref:** ONA-075/016
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:40:18. **Bukatu:** 00:43:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denboran, jendea oso beldurtuta zegoen auzoan, nahiz eta Oñatin frontierik egon ez. Jesusen etxetik Udanako tiroketa entzuten zuten, baita Arrasate aldekoa ere. Beraiek Bakuera joaten ziren gerra ikustera. San Jose egun batean, kanoikada batzuk erori ziren Antsolopetegitik ez oso urrun.

12. Zañartu eta Madalenako eskoletan ibilia

- **Erref:** ONA-075/017
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:43:56. **Bukatu:** 00:46:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Gerra denboran, Zañartu eta Madalenako eskoletan ibilia zen eskolara. Gerra-hegazkinen

zaratarekin izututa, eskolatik etxera bidali zituzten. Gerraostean, Madalenako eskolara joan zen. Euskaraz hitz egiteagatik jipoiak ematen zizkieten ikasleei. Oso gaizki pasatu zuten ikasleek erdaraz ez jakiteagatik. Bost urtetik 14 urtera arteko neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten, maisu batekin.</p>

Transkripzioa

- Eta gero gu gerra denporan egon giñan eskolan Zañartun, Zañartun egozen mojak, karidadekuak, han ibilli giñan gu. Eta hemen bonbardeua hasi zanian, hau frentia hasi zanian hemen etorri zan arioplanuak, gorriorak baiño gehixau, danbarradia... billurtuta, etxera. Gerria akabo zanian handik Madalenara pasau giñan, eskolara. Guk erderaz jakin ez, eta euskeraz gekixelako, euskeraz itten gebelako kriston palizak emuten oskuen.
- Palizak, e? Ez da eskola danetan pasau hori, e?
- Baiña Oñatin bai, Oñatin leku askotan, kaleko eskola nazionaletan be emuten euen, bai. Hemen Madalenan ez dakit zeatik.
- Kastiguak igual paretara begira, liburuak eusten ta hola.
- Holako zera ez, guri egurra.
- Egurra, e?
- Egurra. Gero anillua, eraztuna ibiltten zan. Klaro, ha hurringo egunian faten zana, ha etxera, eskolara faten zana harekin, palizia. Palizia sin mas, e? Bueno! Guk euki geben orduen kalbarixua, eta erderaz jakin ez. Erderaz badakitzu, zeozer jakingo geben, baiña etxian, jolasian eta betik ba euskeraz. Maixua ezkiñarik ezkiña zainketan. Ona izango zan igual erderaz ikasteko, eskolia ikasteko, baiña, baiña, bere misiñua.
- Jentien gain amorrua sortzeko bidia.
- Eskolara joan gura ezta egongo ziñazien orduan, ez?
- Gu egon giñan eskolan hemen maixu bateaz ixa larogei, ixa larogei txikiñak eta haundixak danak. Igual egongo giñan ba bost urtetik hamalau urte artekuak ixa larogei, danak batera.
- Hori hemen Madalenan?
- Madalenan, bai. Maristak etorri ziranian, hona Maristak etorri ziranian orduentxe zabaldu zan puska bat. Orduentxe zabaldu zan, maristetara fan ziren batzuk, gure etxetik be fan ziren maristetara. Ni hor geratu nitzan ta bueno, hola ibilli zan.
- Eta nun zegoan eskolia, Madalenako eskola hori?
- Hortxe, zerien dau, Bikoitz tabernia dau ipiñitta.

13. Hiru auzoentzako eskola bat

- **Erref:** ONA-075/019
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:46:40. **Bukatu:** 00:49:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Biderkatzeko taula kantuan ikasten zuten, ikasle zaharragoei entzunda. Idazten ere zer edo zer ikasi zuen. Jesus 11 urtera arte ibili zen eskolan. Soldadutzatik etorri eta gero gau-eskolara joan zen lau urtean. Zubillaga, Garibai eta Antsolopetegi auzoen artean egin zuten Madalenako eskola. Laurogei bat umek elkarrekin ikasten zuten maisu bakarrarekin.</p>

Transkripzioa

- Ze ikasten zenduen, zeatik hainbeste umekin zela konpontzen zan?
- Kantuan.
- Kantuan?
- Tabla dana, ez dakitzu? Multiplikarreko tabala dana kantuan, zaharraguak itten eben eta gero mutikuak be, beste gaztiaguak be ikasi eta haretzekin. Aurrerazka eta atzerazka. Hasi “uno por uno” hasita, “dos por dos” ta holaxe hasi, beratziraiño, atzera gero buelta atzerazka, hori ikasi geben guk kantuan ikasi geben guk hori. Gero eskribitten ta ba etxien, ez dakit, etxien igual ingo geben, bertan be itten geben eskribitten-ta. Ta gero hemen gu eskolan hamaika urte arte ibilli giñan bakarrik, ni behintzet, eta gero gau-eskolatan ibilli giñan asko. Soldadutzatik etorri eta gero gau-eskolatan ibilli nitzan ni ba lau bat urtian-edo, zeozer ikasten, bestien ez geben ikasi te.
- Eske larogei umekin ez dakit ze...
- Bai, hirurogeta hemezortzi behintzet egonda gaoz.
- Eta irakaslia bakarra?
- Bakarra, bakarra.
- Kanpotarra zan bera?
- Kastillakua. Bera zan, hona noiz etorriko zan ez dakit. Hemen esaten daue aurretik egon zala Maistra Zaharra esaten dotsaiña, oso gogorra. Ha zala irakusten ta oso gogorra baiña irakusten oso ona. Aurretik, nik ez neben ezagutu ha, e? Eta Madalenako eskoliori hori in daue hiru auzoren artian inddakua da hori. Zubillagakuak, honek auzo hanek eta Garibai auzuak. Eta zertako in euen? Edo zela in euen ez dakit, behintzet hiru auzuena zan. Gero in zan jabe aiuntamientua, baiña gero e? Aiuntamientuak in eben arreglau eta in zittuan, arreglau eta in eben, eta horren gaiñian dago bizitzaia, hor bizi zan maisua.
- Eta maixua bertan bizi zan orduan?
- Bai, bai. Oin horko maixuen alaba bat bizi da Oñatin, urte pilla bat derrigor euki bihar (di)ttu, alaba bizi da.
- Eskolia pagau itten zan?
- Ez, guk ez geben pagaitten. Neuk dakiela ez behintzet, oin hango partikular ipintten baldin baotsun bai, orduan bai. Partikularra ez dakit zenbat kobraitten euein baiña gu partikular asko fan giñan.
- Gau-eskolak...
- Gau-eskolak eta eguardiko eskolak be bai, eguardixan be hamabittan urteten geben eta hamabi ta erdittan atzera ekitten zan eta ordu bixak arte. Oin pagau-ta ez dakit zenbat pagaitten zan.
- Eskolan goiz ta atsalde.
- Bai, goiz ta atsalde. Hemen Zubillaga auzo dezentia zan, Zubillaga haundixa, nehiko haundixa ta oin baiño gehixao, jente gehixao biziko zan eta seguramante, eta han euzen ba hemengo aldian jente asko, eta Garibai da beste, erreken beste aldekoa, Garibai hori be San Pedroraiño hartzen eben. Eta horreik be eskola hortara etorten ziren.
- Ume pillia e!
- Bai, hirurogeta hemezortzi ume, hirurogeta hemezortzi behintzet, larogei igual egongo giñan.

14. Errepidean jolasean

- **Erref:** ONA-075/020
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:49:50. **Bukatu:** 00:52:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Jesusek eskolatik alde egin eta gero beste hiru maistra egon ziren auzoko eskolan. Bera 14 urterekin Garai lantegian hasi zen lanean. Errepidean jolasten zuten futboleak. "Txirikiletan" garizumako jolasa izaten zen. Auzoko neska-mutil taldeak elkartzen ziren txirikiletan jolasteko errepidean.</p>

15. Bizikleta gehiago autoak baino

- **Erref:** ONA-075/021
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:52:44. **Bukatu:** 00:55:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Jesusek lehenengoz ikusi zuen kotxea Zubillagako Altunatarrena izan zen. Hori eta bergarar errekadista baten kamioia ziren eskola ondoko errepidean pasatzen ziren ibilgailu berri bakarrak. Orduan bizikleta erabiltzen zen asko. Bizikletak alokatzen zituzten tailerrak ere bazeuden. "Gorde-gordeka", "tenteka", "txorro-morrora" eta intxaurrekin "potoloka" (kanikarik ez zegoenean) jolasten zuten.

Transkripzioa

- Ni hemen leheningo-leheningo automobilla akordaitten naiz zer bat, ez dakit nungua izango zan. Garaiñak euko eben seguramante baiña gu Garaiñera, kalera zela ez giñan faten, guk ez geben ikusten hori. Hemen etorten zan leheningo-leheningo nik ezagutu nebena behintzet, Altuna. Altunatarrak ekarri euen hemen kotxe bat, Altuna, Altuna anaiak, Zubillagako horreik, horreitek kotxe bat. Nik leheningo kotxia horixe ibiltten zan hemen, horreik eguardixan ta gabian ta goizian betik ibiltten zan. Eurok anaiak automobillan ibiltten ziren ta. Eta gero? Gero badakitzu, "la peste, la peste del siglo". Eta kotxia ba, guk karreteran, kamiñuan ez geben trabarik itten. Kamionak? Noizian behin beste kamiontxo bat ibiltten zan, hemen Bergarako haxe ibiltten zan beste bat, errekadista moduen haxe, besterik kitto, iñobez. Domeketan ta iñobez, iñobez, bizikletan bai, bizikletia asko ibiltten zan orduen, orduen bizikleta alkilerak egozen, Torrena por ejenplo alkilerra euen, atzenengua Roman Igartua, Roman Igartua ez dakit ezagutu zebeñ zuk.

- Ez, nik Torrena bizikleta alkilerra ez, nik Luxiona ezagutu neben.

- Horren aurrekuak, Luxio gerokua, atzeningua da hori. Eta horreittan egoten zan bizikletak alkilerrien. Horreik pagaitten ez naiz akordaitten, pezeta bat edo orduko edo, pezetia baldin bazeuken hartu eta bizikletan ibilli, ordurako atzera entregau ta... gerra ondorien geruau e? Horreik izaten ziren gure dibersiñuak, txirikilletan, gorde-gordeka. Gorde-gordeka zu be ibillitta egongo zara seguramante, gorde-gordeka...

- Zuek tenteka-ta...

- Tenteka.
- Txorro-morro-piku-tallo-ke...
- Txorro-morro ta tenteka-ta, gero intxaurakin be bai, potoloka. Zuek ibiltten ziñain intxaurakin potoloka?
- Ez, guk intxaurakin ez, kanikak moduen intxaurak?
- Bai, kanikak moduen.
- Entzun barik neuken, intxaurakin.
- Kanikarik ez euenien intxaurakin.
- Kanikak ez, intxaurakin. Udazkenien agerketan ziren, potolotxo bat iñ eta han.
- Guk potxua esaten gotsan horri. Potoluari potxua.
- Guk potolua esaten gotsan. Gero kaniketan asko, kaniketan gure gazte denporan asko itten zan kaniketan. Kanikiak be dirua balixo eben eta, erriel bateatik ez dakit zenbat emuten zittuein, lau edo bost kanika emuten zittuein ta baten bat galdu itten bazeben, danak harrapo, galdu igual-ta. Eta horreik ziren zerok, gero tenteka, harrapo-harrapoka, gorde-gordeka, txirikilletan bere epokan.

16. Basoan jolasean eta gaztainak batzen

- **Erref:** ONA-075/022
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:55:33. **Bukatu:** 00:57:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Basoan katagorriak harrika harrapatzen edota txori habiak bilatzen ere ibiltzen ziren. Gaztaina denboran gaztainak batzera joaten ziren Koixkar (Korosbizkar) aldera. Gaztainadia zuten baserrientzako gaztaina elikagai garrantzitsua izaten zen gaztainok irauten zuten artean.</p>

17. Salda eta gaztainak

- **Erref:** ONA-075/023
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:57:15. **Bukatu:** 00:58:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Santu Guztien egunetik San Andres egunera bitartean ereiten zen garia. Bukatzen zenean danbolinean erretako gaztainak jaten ziren. Salda eta gaztainak atera omen zuen Euskal Herria aurrera. Arrautzak gaixorik zeudenean bakarrik jaten zituzten, indarrak berreskuratzeke. Etxean bi txerri hiltzen zituzten urtean.</p>

18. Gau-eskolan ikasten

- **Erref:** ONA-075/025
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:58:57. **Bukatu:** 01:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Bost-sei urterekin hasi zen eskolan. Itaurrean (idien aurrean) egin behar zenean, ezin izaten zuen eskolara joan. Jesus Zañartuko eskolan gustura ibili zen, baina auzoko eskolaren inguruko oroitzapen txarrak ditu. Gau-eskola izan zuen gogoko. Marrazketa ikasteko, Garai lantegiak ordaindutako gau-eskolak jaso zituen. Matematikak aparte ikasi zituen.</p>

Transkripzioa

- Umetan eskolara zenbat urtekin hasi zifan?
- Bostekin-edo, bostekin edo seikin, sei igual, ez dakit, hori ez otsut esango zenbatekin, sei igual.
- Eta zuri pasatzen jatzun lanak in biharra baserrixan eta ezeittela joan eskolara.
- Ittaurren in bihar dala ta, ittaurren ibillitta egongo haiz ba.
- Ni ez.
- Ez? Ittaurreko denporan eskolara ezin fan. Gu gafiñera faten gifiñ txandaka, gaur zuk geratu bihar dozu, bixar... holaxe. Ittaurren...
- Gustau itten xatzuen eskolara fatia?
- Ba, ni Zañartun gustora ibilli nitzan. Hemen ez, hemen hutsa bihar zebe bixkarrekua emuteko, eta hemen ez, baiña han bai, Zañartun bai. Maristetan-ta gure anaia-ta ibilli ziran ta, gustora ibilli ziren. Ni gero ibilli nitzan gustora, gero, soldautzatik etorri eta gero.
- Gau-eskolan.
- Gau-eskolan, gau-eskolan ingo nittun nik lau bat urte, ingo nittuan. Pittin bat zeozer, zeozer-zeozer ikasteko. Gero irakurteko afiziñua pittin bat euki neben ta ba.
- Eta nun, herrira faten zifan?
- Bai, baiña zerien herrira, fabrikatik faten gifiñ e? Garaittik orduen bialdu itten geuzen, eta gero nere kontura be bai. Fabrikatik bialdu itten geuzen. Itten gittun hiru hillabete-edo, hiru hillabete-edo itten gittun fabrikatik. Fabrikiak pagaitten eben eta gu faten gitzan eskolara.
- Eskola jenerala ikastera edo fabrikako gauzak?
- Fabrikako dibujua emuten oskuen asko. Guk partikular eskatuta urte beten in geben matematikak, emun oskuen geuk eskatuta. Maixu Marista zan direktore itten ebenak, emun oskun matematikak. Eta ondo, ni han gustora, eta hantxe ikasi nebela puxka bat. Uste dot hantxe ikasi nebela.
- Eta zuk zenbat urte ibilli zifan Zañartun hona etorri aurretik?
- Ba gerria akabo arte. Ni gerria akabo arte.
- Zañartun.
- Zañartun. Ni sei urtekin fango nitzan Zañartura bai, seguramente, sei urtekin, gerria hasittakuan sei urte ta akabo zan "treintay nueve"ian edo "cuarenta"n-edo, eta ni hemen geratu nitzan, Madalenen geratu nitzan.

19. Garia ehotzeko esku-errota

- **Erref:** ONA-075/026
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:01:10. **Bukatu:** 01:02:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Gose urte latzak etorri ziren gerraostean. Artoa eta garia ematera behartuta zeuden, eta errotak itxita zeuden. Arrasaten asmatu zuten garia ehotzeko esku-errota bat gogoratzen du Jesusek. Esku-ehotze lana oso nekagarria zela dio.</p>

Transkripzioa

- Gose urtia, hemen gose urtia izan zan ba, gose urterik gogorrena izango zan “cuarenta-cuarenta y uno” izango zan hemen. Trenta y nuebian ta gerria akabo ta artian baeuen zeozer, gero gutxittu zan hemen gauzia asko, gero, gerra mundiala egon zanian, orduen gutxittu zan gogor asko hemen, orduen babia jarteko ta be... orduen...
- Orduen ze in bihar izaten zeuein, zeuen produkziñotik zati bat emun, ezta? In bihar izaten zan.
- Garixa entregau in bihar izaten geben, artua be entregau in bihar izaten zan.
- Dana?
- Ez, ez, bai, horixe bihar dogu bakarrik! Gero errotarik ez euen zabalik, eta gero hemen ha uste dot baten batek euko dauela gordeta. Hemen Mondrauen in zittuen ez dakit zela eukan izena, harri zera batzuk, ixoteko, garixa ixoteko holako eskuakin itten ziran batzuk, pote batzukin-ta, ez dakit zela eukein izena, ixotekuak.
- Esku errotia-edo izango da.
- Ez, ha zan zerakin, botaten zan eta errotatxo bat eukan eta eskuakin. Gogorra, nekia, eta egunian hiru potekada in bihar izaten gittuan, hiru potekada. Eta ibiltten giñan atsaldian hasitta txandaka, gabian ta. Leheningo pasadia izaten zan gogorra, bigarren pasadia samur emuten xakon, leheningo pasadia. Eta estutu in bihar, bestela ez zan urunik urteten, zahixa, zahixa bakarrik. Bueno, in gittun, itten gittuan! Hareitxek uste dot baten batek eukiko (di)ttuela gordeta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com